

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**219/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa. Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Valderejoko Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzeari**

2025eko otsailaren 11n, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak foru aldundi honi jakinarazi zion kargu bat hutsik zegoela Valderejoko Administrazio Batzarrean, administrazio batzar horretako lehendakari-errejidore kargua zuen Restituto Estévez Rodríguez erroldan baja eman zitzaiolako eta kargu huts hori ezin izan zelako bete, hautetsitako ordezkorik ez zegoelako.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiari eskatu zion kudeaketa batzorde bat osa zezala. Batzorde horretako kide izango dira Errejidore eta Batzarkideak Hautatzeari buruzko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren 4. artikuluan ezarrita dauden hautaezintasun kausaren batean ez dauden hautetsi guztiak, bai eta uko egin ez duten gainerako batzordekideak ere.

Horiek horrela, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidore eta batzarkideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin eta Arabako administrazio batzarretako kudeaketa batzordeak eta bokal kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta lanean aritzeari buruzko arauak ezarri zituen Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin, bokal kudeatzailea izendatu behar da, kudeaketa batzorde horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren martxoaren 5eko 132/2025 Foru Aginduen bidez, Valderejoko Administrazio Batzarrari eskatu zitzaion proposa zezala foru aldundi honek zer pertsona izendatu beharko lukeen kudeaketa batzordeko kide izateko, gaur egun hutsik dagoen kargua betetze aldera.

Fede emailearen 2025eko martxoaren 31ko ziurtagiriaren bidez, foru aldundi honi jakinarazi zitzaion 2025eko martxoaren 30ean egindako kontzejuaren auzo batzarrean erabaki zela Aitor Amiano Erasun proposatzea Valderejoko Kudeaketa Batzordeko 2. bokal izateko.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak eta 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak sail honi esleitzen diote, besteak beste, kudeaketa batzordeen izendapenarekin lotutako prozedurak kudeatzea, hala dagokionean.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluari eta 24.5 artikuluari jarraikiz, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aitor Amiano Erasun jauna Valderejoko Kudeaketa Batzordeko 2. bokal izendatzea.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorritz, errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezi batean jabetuko da karguaz aipatutako bokala. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egingo da bilkura hori.

Bilkura egin ondorengo hiru eguneko epean bidali behar zaio Arabako Foru Aldundiari bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala, eta Valderejoko Administrazio Batzarrari, Gaubeako Udalari eta Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari helaraz diezaiela.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 15a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JAVIER GARCÍA GORBEÑA**